

FUNTSEZKO BALIABIDEAK eta JARDUERAK:

Atal honetan, gure negozio-ereduak ondo funtziona dezan beharrezkoak izango ditugun funtsezko ekintzak eta aktibo nagusiak deskribituko ditugu.

Gure ustetan, proiektua aurrera eramateko eta negozio-ereduak funtzionatzeko egin behar diren funtsezko jarduerak honako hauek dira:

1. Futboleko zapatilen sorkuntzarako materialen aurkikuntza. Horretarako, material horiek saltzen dituen enpresekin kontaktuan jarriko gara. Enpresa aukeraketa egiterako garaian, honako hauek izan dira enpresak bete behar zituen ezaugarri eta helburu nagusienak eta garrantzitsuenak:
 1. Gertutasuna: Empresa bat, pertsona baten negoziotik ahalik eta gertuen egon, orduan eta bidaiak gastu txikiagoa eta bidaiak egiteko denbora txikiagoa egongo da.
 2. Material sintetikoa: Futboleko zapatilak sortzerako garaian, gaur egun material sintetikoa da gehien erabiltzen dena, kostu baxua eta iraupen luzea duelako.
 3. Prezioa: Materialak enkargatzeko garaian, prezioarekin argi ibili behar gara, diru sarrerak ez ditugulako oso handiak.
 4. Enpresak dituen urteak: Empresa batek geroz eta urte gehiago eduki, orduan eta esperientzi gehiago du eta fidagarriagoa izango da enpresa horren produktuak erostea.

4 ezaugarriak betetzen zituen enpresak honako hauek dira:

1.1. Futboleko zapatilaren azalentzarako : **ELIGETA PIEL SL.**

ELGETA PIEL SL enpresa 2000/07/13an sortu zen Elgetan (Gipuzkoa). Larruzko oinetako sintetikoak, larruzko jantzi sintetikoak eta jantzien osagarri sintetikoak dira enpresa honen helburu sozialak. Prezioak ez dira garestiak, eta eskaintza oso onak dituzte.

1.2 Futboleko zapatilen takoak : **Somonguara Sports S.c**

Somonguara Sports S.c. ARGENSOLA KALEA, 2 - 1 D da, HUESCAko BARBASTRO udalerrian. 14 urteko antzinatasuna du. 2007/05/25ean sortu zen, helburu sozial honekin: kirol jantzi eta

gauzen denda birtuala, horien artean futbol zapatillen takoen salmenta.

1.3 Futboleko zapatilen lokarriak : **Futbolmania**

Fuboleko zapatilen ezaugarriak saltzen ditu, eta horien artean futbol zapatilen lokarriak. Bidaltze prozesua doainik denez, kokalekuak ez du asko inporta.

1.4 Futboleko zapatilen plantilak : **Plantillas coimbra SI**

Calle Severo Ochoa, 0 S/N Pol Ind Radium, 08403 Granollers,(Barcelona). Orain dela 27 urte sorturiko empresa bat da, non mota guztietako lokarri eta oinetarako txantiloien fabrikazioak egiten diren.

2. Aukeratutako empresa guztiekin kontaktuan jarri ondoren eta material guztiak lortu ondoren, zapatilen fabrikazioarekin hasi beharko gara. Honetarako, edozein motatako zapatilak sortzen dituen empresa batekin kontaktuan jarri beharko gara.

Aukeratu dugun empresa hau da: **Alejandro avilés craftsmanship in shoemaking.**

Empresa honek, bere web-gunean esaten duen bezala, edozein motatako zapatilak fabrikatzen ditu, sortzaileak nahi duen bezela alegia.

Aukeratutako empresa honek 30 urte ekin ditu lanean, eta Barcelona da hauen kokalekua.

3. Materialak garraiatzeko **Amazon** empresarekin jarriko ginateke kontaktuan.